

Inauteriak

Euskaltzaindiaren

Hiztegia



UZEIren lankidetzarekin



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

andere xuri

iz. Maskaradetako jokalaria.

aratuste

iz. *Bizk.* Inauteria. *Aratusteetan egiten diren zorakeria eta nabarmenkeriak.*

astearte inaute

iz. Inauterietako asteartea.

astelehen inaute

iz. Inauterietako astelehena. *Hori astelehen inautez egingo da.*

azeri dantza, azeri-dantza

iz. Euskal dantza mota jolas girokoa, inauterietan eta bestelako jai nagusien bukaeran dantzatzen dena.

eltzagor

iz. Bi aldeetako bat larru tenkatu batez estalia duen eltze modukoa, zarata ateratzeko erabiltzen dena, inauteri eta kideko jaietan edo animaliak eta piztiak uxatzeko erabiltzen dena. *Entzun zuen xirribika, eltzagor eta dantza-hotsa.*

Emakunde

iz. *Naf.* Nafarroako zenbait herritan ospatzen den Ostegun Gizen aurreko osteguna, emakumeek inauteetan parte hartzen dutena. *Bihar Emakunde eguna da.*

Gizakunde

iz. *g.g.er.* Nafarroako zenbait herritan ospatzen den inauterietako jaia, herriaren arabera, Ostegun Gizena edo aurreko beste ostegunen bat izan daitekeena. *Ez, Gizakunde duk gaur, eta soinu tresneria muntatu behar diat Erratzuko elkartean.*

igande inaute

iz. Inauterietako igandea. *Igande inaute eguerdian.*

ihaute

iz. *Ipar.* Inautea.

ihauteri

iz. *Ipar.* Inauteria.

inaute

iz. Inauteria.

inauteri

iz. (Singularrean nahiz pluralean). Garizuma aurretik egiten diren olgeta-egunak, bereziki Hausterre egun aurreko igande, astelehen eta asteartea. *Tolosako inauteriak. 1850. urteko inauterietan. Inauterietako jaiak. Inauteri dantzak.*

joaldun

iz. Zubieta eta Iturengo inauterietako pertsonaia, joare handiz hornitua ibiltzen dena. *Iturengo joaldunak.*

kantiniersa

iz. *Ipar.* Maskaradetako dantzaria, Napoleonen armadako urketarien antzera jantzirik joaten dena.

karakotx

iz. pl. Maskarada. *Luzaideko karakotxak.*

kaskarot

iz. Lapurdiko inauterietan dantzan egiten duen pertsonaia, soinean alkandora eta galtza zuriak, txapel eta gerriko gorria eta beso eta hanketan koloretako xingolak eramaten dituena. *Kaskarotak, etxez etxe eskean ibiltzen diren gazte dantzariak. Zubietako joaldunak eta Lapurdiko kaskarotak. Lapurdin kaskarotek gidatzen dituzten inauteriak dira protagonista.*

kerestu

iz. *Zub.* Zuberoako maskaradetako pertsonaia, zamaltzaina zikiratzen duena.

koko jantzi, koko-jantzi

iz. Mozorroa (jantzia). *Badira urte guztian koko-jantzia erabiltzen dutenak.*

koko jantzi

da/du ad. Mozorrotu. *Gaur aratuste duk, eta koko jantzita joan behar diagu herrira.*

marika

iz. *Ipar.* Lapurdiko inauterietako pertsonaia maskaraduna, gerri inguruan zintzilikaturiko zintzarri batzuek hornitua ibiltzen dena. *Lehenik, hogeita hamar bat dantzari gazte, handik segidan, lau kaskarot eta lau marika.*

maskarada

iz. Zuberoako dantza- eta kanta-ikuskizuna, inauterietan kalez kale joanez jokatzeko dena. *Maskaradetako jokalaria.*

mamutu, mamu/mamutu, mamutzen

da/du ad. Mozorrotu.

maskaratu, maskara/maskaratu, maskaratzen

da/du ad. Mozorrotu. Maskaratu zen Andaluziako kontrabandisten modura.

mozorro

1 iz. Kartoiz, ehunez, plastikoz edo kidekoz eginiko irudia, aurpegi bat irudikatzen duena eta begitarte estaltzeko erabiltzen dena. *Zuhaitz azalekin eginiko mozorro beldurgarriak jartzen dituzte. Aurpegia mozorroz estalita.*

2 iz. Norbaitek, beste norbaiten edo zerbaiten itxura hartzeko, edo inork ezagut ez dezan, jartzen dituen jantzien edo bestelakoen multzoa. *Ahizpak mozorroa jantzi eta berebiziko sustoa eman zion. || Nazien gezurrari zientziaren mozorroa jantzi nahi diote.*

mozorrotu

1 *da/du ad. Aurpegia mozorroz estali.*

2 *da/du ad. Mozorroa jantzi. Mozorrotua zegoelako. Itsaslapurrez mozorrotua. Horretarako, bankari eta enpresa-gizon mozorrotu ziren batzuk.*

Ostegun Gizen

iz. Inauteri aurreko osteguna. *Otsailaren 11n, Ostegun Gizen eguna izango da. Urte guztietako ostegun gizen egunetan egiten dute gizon dantza.*

pella

iz. Jaki gozoa, irinez, esnez, azukrez eta gurinez eginiko ore zatiak frijituz prestatzen dena. *Pellak eta torradak jateko ohitura dago inauterietan.*

sorgin dantza, sorgin-dantza

iz. Inauteri giroko dantza, gizezkoek bikoteka, batzuk emakume jantzian eta besteak gizon jantzian, egiten dutena.

torrada

iz. Esnetan beraturiko ogi xerra irin-arrautzetan pasatu, frijitu eta azukrezaturik egiten den gozokia. *Inauterietan torrada jaten dira.*

txino-dantza

iz. *g.er.* Aretxabaletan, inauteri igandean, herriko gazteek kalean gora eta behera ibiliz egiten duten jai giroko dantza.

zaldiko

iz. Lanzko inauterietako pertsonaia, aurpegia zapi batez estalirik eta zurezko zaldi irudi bat gerri inguruan duela, jendea bultzatzen eta uxatzen ibiltzen dena; Iruñeko jaietan, erraldoi, kiliki eta buruhandiekin batera ateratzen den pertsonaia, gerri inguruan zaldi irudi bat duena. *Gaztetxoena erraldoien, buruhandien eta zaldikoen zain ziren.*

zaldun inaute, zaldun-inaute

iz. Hausterre egun aurreko igandea, igande inautea. *Zaldun-inaute goizean. || Zaldun-inaute eguna.*

zamaltzain

iz. *Ipar.* Maskaradetako dantzaria, gerri inguruan loturik zurezko zaldi irudi bat eramaten duena. *Hauen artean, Polo Garat argazkilaria, zamaltzain aritua Barkoxeko dantza taldean.*

zanpantzar

iz. Inauteria irudikatzen duen txorimalo antzekoa, astearte inaute edo Hausterre egunean erretzen edo uretara botatzen dena.

zapur

iz. *Ipar.* Maskaradetako pertsonaia, zuriz jantzia joaten dena eta sorbaldan aizkora eta buruan ardi larru iledunez eginiko kapela beltz handia eramaten dituena.

Eguneratze-data: 2024-02-25



UZEIren lankidetzarekin



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE